

## IKASLEEN ARTEKO FOROA

Ikasturtean zehar egindako lanak elkartzeko asmotan, apirilaren 25an bi ikastetxeetako ikasle ordezkariak Elkarguneko gela batean bildu ginen. Bertan, gure proposamenak ere batu genituen. Eta hondakinen gaia konpontzen laguntzeko denon parte-hartzea ezin bestekoa denez, **guk ere gure konpromisoak berritu ditugu:**



- Ikasi dugunaren berri eman etxean eta kalean.
- Gurasoak materia organikoa gaika biltzen duen edukiontzia erabiltzera bultzatuko ditugu.
- Hamaietakoan ahal den eta bilduki gutxienekin ekarri.
- Eskolako materiala zaindu eta ondo aprobetxatu
- Ahal dena konpondu berria erosi beharrean.
- Berrerabili daitezkeen gauzak erabili, adibidez, oihalezko mukizapiak.
- Etxean hondakinak ongi banatzen lagundu.
- Kalean sortzen ditugun hondakinak, gehienetan goxokien bildukiak, edukiontzietara bota eta ez lurrera.



### Ikastetxeetan hartu ditugun konpromisoak:

- Paper kontsumoa gutxitu ("Educamos" plataforma erabili, bi aldeak aprobetxatu, zirriborro paperak, informazioa anai-arreba txikienari bakarrik...)
- Gaikako bilketa patioan jolastorduetan, geletan, jangelan...
- Hondakin organikoa konpostatu
- Baratza ekologikoaren funtzionamendurako beharrezko baliabideak eskaini.

## UDALERA ZUZENDURIKO PROPOSAMENAK

Hondakinen arazoa larria da. Eta Eskolako Agenda 21 bitartez, herritarrei laguntzeko prest gaude. Kalean inkestan egin ditugunean hainbat kexa sumatu ditugu. Ikasleen arteko Foroan proposamenak lehentasunaren arabera zerrendatu ditugu. Hona hemen:

1. Eskolako Agenda 21eko informazioa Kontsejupetik aldizkarian zabaldu eta erabili hondakinen inguruko informazioa herritarrei helarazteko, adibidez, gauzak konpontzeko lekuak. Gainera, aldizkaria Internetez jasotzeko aukera eman.
2. Informazioa hizkuntza desberdinetan zabaldu, atzerritarrak egoeraz jabetzeko.
3. Zergatik daude hainbeste errefusa edukiontzi? Ez dira beharrezkoak. Materia organikoa gure zabor poltsaren % 52a izanik, edukiontzi marroi gehiago beharko lukete. Herritarrei errazago egiten zaie etxe aurreko errefusa biltzen duen edukiontzira botatzea. Eskakizuna honakoa da: gehitu edukiontzi marroia eta errefusa biltzen duten edukiontziak gutxitu
4. Kaleko zakarrontzi txikietan gaikako bilketa egiteko aukera eman, lau zati bereiziz. Eta kale garbitzaileek poltsa desberdinetan sailkatu kaleko zaborra.
5. Zakarrontzi erakargarriak jarri.
6. Orain arteko kanpainak ez dituzte lortu guk nahi genituzkeen emaitzak. Horretarako beste sistema batzuk probatu: etxepeko bilerak aprobetxatu, boluntarioak edo udal langileak prestatu zaborrak kontrolatzeko eta sailkapenean herritarrak laguntzeko.

# AZKOITIA Eskolako Agenda 21

2012-2013 IKASTURTEA



## HONDAKINAK



### Egun on guztioi!

Beste urte batez, Azkoitiko neska-mutiek, gure irakasleen laguntzarekin, Eskolako Agenda 21 programari ekin diogu. Aurtengoa gainera, berezia izan da, 2003an hasi ginenetik 10 urte bete ditugulako. Gai ugari izan dira hamar ikasturteko bide honetan landu ditugunak: energia, hondakinak, kontsumoa, ura, biodibertsitatea, elikadura, garraioa eta mugikortasuna, kutsadura... Urtetik urtera gai bakoitzetik pixkatxo batekin geratzen saiatu gara, gure eguneroko lanean txertatuz, eta modu horretan, bai ikasketa mailan, bai jokoera eta ohitura mailan, ingurumena kontuan hartzen ikasten ari gara, ingurumenaren zainketari lehentasuna emanez.

Aurtengo ikasturterako aukeratu dugun gaia ez da berria izan, askotan jorrotutakoa baizik, **HONDAKINAK**. Ikastetxean nahikoa ongi txertatutako gaia bada ere, herrian oraindik arazo handia sortzen du eta horregatik, guk ere gure harri koxkorra ekarri nahi izan dugu.

Gaur egun, kontsumitzeko ditugun ohiturak eraginda, hondakin asko eta mota askotakoak sortzen ditugu. Eta jada ez dakigu zer egin horiek guztiekin! Zabortegiak beteta, ez dakigu non sartu eta okerrena, gure artean ere ez garela ados jartzen.

Arazoa konpontzen hasteko, guri iruditzen zaigu oinarririk hasi behar garela, hondakin gutxiago sortzen. Eta zentzu horretan bideratu ditugu aurtengo jardura gehienak. Beraz, oraingo honetan, Xabier Munibeko DBHko eta Floreagako San Jose Ikastetxeko haur eta gazteak, ikasturte honetan egindako lanak eta ateratako ondorioak aurkeztera gatoz. Guztira 861 ikasle izan gara, gure irakasleekin batera, gaia jorrotu dugunak.





## LEHENIK ESKOLAN

- Plastiko poltsekin dugun arazoaz jabetu gara. Erabili ondoren zenbat denbora behar duten desegiten, itsasoko animaliei dakarkien arazoak... Ikusi dugu posible dugula erosketak egitea hainbeste plastikozko poltsa erabili gabe. Adibidez, tuperra erabili dezakegu, fruta eta barazkiak erosten ditugunean karritoan eraman ditzakegu etxera, etxetik oihalezko poltsa edo saskia hartu dezakegu...
- Hondakinekin jolasean aritu gara.
- Hondakinak murrizteko objektuak berrerabiltzea behar beharrezkoa da.
- Zein garrantzitsua den gaikako bilketa eta material desberdinen artean, organikoa biltzea, gure hondakinaren %52 izanik.
- Floreagan, baratza ekologikoa martxan ipini dugu eta honekin batera, konpostagailu bat muntatu dugu, nola erabiltzen den ikasiz. Azken honetarako Zero Zabor taldekoen laguntza izan dugu. Beraiekin gaikako bilketan sakondu dugu, gure hamaiketakoekin sortutako hondakinak aztertuz.
- Ipuin lehiaketa egin dugu hondakinen gaiaren inguruan.
- Eskulanak egin ditugu berrerabiltzeko materialekin.
- Eskolako Agenda 21eko Txokoa horma-irudiak, informazio orriak eta taulak jarri ditugu, denak ikus dezaten.



- Ikastolako zakarrontzietan, koloreaz gain, txartelak ipini ditugu bilketa hobetzeko asmoz. Gainera, hondakin organikoak jasotzeko hiru ontzi marroi kokatu ditugu bi gunetan.
- "Ibaialde" erakusketa izan dugu ibaiaren osasuna eta garbiketaren kontzientzia hartzeko.
- Gaiaren inguruan ikus-entzunezko eta dokumentu ugari ikusteko aukera izan dugu: "Midway", "Ekoshopper", Simpson telesailaren zaborrari eskainitako kapitulua, "Reduce, reutiliza, recicla", zaborraren irla Ozeano Barean, "Home" bideoa eta abar.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak bideratutako "Eskolan hondakinak prebenitu" kanpainan parte hartu dugu. Bertatik bidalitako ogitartekoak eta hamarretakoak biltzeko bilduki berrerabilgarriak banatu dira maila batean (Boc'n roll-ak) eta asko erabiltzen direla ohartu gara. Zabor gutxiago sortzearen kontzientzia zabaltzen ari gara.
- Aurreko urtean ikastolan hasitako tapoi bilketarekin jarraitu dugu eta bilketako ontzia lekuz aldatu dugu, pasilloetara ateraz. Askoz gehiago jasotzen dela nabaritu dugu.

Eta gelatik kanpo, urtero egiten dugun bezala, txertatuta ditugun behaketak eta bisitak ere burutu ditugu:

- Urola ibaiaren garbitasun egoeraren azterketa "Ibaialde" programaren barne.
- Lapatxeko zabortegia eta kontsumo gela.
- Ibai Eder urtegia, edateko uren araztegia eta Badiolegi hondakin uren araztegia.



## HERRIKO DIAGNOSTIKOA

Herriko egoeraz jabetzeko hainbat galdeketa eta azterketa burutu ditugu, etxean, gure artean eta kalean.



1. Poliki-poliki ari gara ohiturak aldatzen. Gero eta gehiago gara erosketak egiterakoan etxetik poltsa, kaxa edo karrito eramaten dugunak. Eskolan ere HHko ikasle gehientsuenak tuperrean ekartzen dute hamaiketakoak. Konturatu gara adinean gora lotsa ematen digula tuperra ekartzea, horregatik oso egokia izan daiteke beti poltsa bera erabiltzea edo "boc'n roll" delakoak ogitartekoentzat.



2. Erabili eta bota sistemaren kontra joanez, Azkoitiko konponketa lekuak aurkitzen aritu gara. Badira hainbat trena oso ongi ezagutzen ditugunak non konpondu: arropa, oinetakoak, etxetresnak, ordenagailua. Aterkiak adibidez, askok ez dute ezagutzen non konpondu daitezkeen Azkoitian. Orokorrean, etxeko tresna txikiak ez ditugu konpontzen, oso garesti iriteten baita. Diru pixka batengatik berria eduki dezakegu.

3. Hondakinen prebentzioan hierarkia landu eta prebentzioaren abantailaz jardun dugu. Azkoitian zenbat zabor sortzen dugun ikusi dugu, matematikan ehunekoak kiloetara pasaz. Jabetu gara erdia baino gehiago materia organikoa dela. Azkoitiarrok egunean kilo bat zabor baino gehiago sortzen dugu (1,08 kg) eta bakarri % 26,5 bideratzen dugu birziklatzera. Oso gutxi benetan.

4. Ikerketarekin jarraituz, Azkoitiko Udalaren web orrian zer informazio zabaltzen den ikusi dugu eta interesgarria iruditu zaigu ingurumen atala.
5. Gure familien artean eta kalean, inkestak pasa ditugu, herritarrek hondakinen murrizketaren inguruan duten jokaera aztertzeko. Eta era berean, dendariei.
6. Bigarren Hezkuntzan kontsumoak eta hondakinen ekoizpenak lotura estua dutela ohartu gara. Gizarte kontsumista batean bizi gara eta gazteok ohitura kontsumistak ditugu. Dirua dugun bitartean mugikorra aldatzen dugu behin eta berriro, arropa erosten dugu... azken aldiko krisia dela eta kontsumoa gutxitzen doan arren. Azkoitia garbi mantentzeko zerbait egiten al dugun hausnartzen jardun dugu. Egoten garen inguruetan zakarrontziak gertu eduki arren, aitortu dugu ez ditugula behar adina erabiltzen. Aste bukaeratan Jalai, Nam-Nam eta Balda plaza inguruak adibidez, zerrikeriaz beteta uzten ditugu, eta jarrera hori hobetu beharrean gaude.
7. DBHko 3. eta 4. mailetan gure lurraldean hondakinen bilketaren inguruan sortu den mugimendua ere aztertu dugu gaikako bilketa sistema ahalik eta eraginkorrena jartzeko asmoz. Horretarako gure zabor poltsaren izaera aztertu dugu eta hortik zenbat bildu den gaika ikusterakoan, oso gutxi birziklatzen dela garbi geratu da. Bilketa sistema desberdinak azaltzen dituzten hainbat web orrialde ere kontsultatu ditugu. Gure artean hausnartu dugu gaia eta gehiago birziklatzeko konpromisoa hartu dugu. Oso zaila izango dela adostasun batetara iristea bilketa sistema aukeratzekoan ere ondorioztatu dugu.
8. Ekintza guzti hauetaz gain, berrikuntza bezala, argazki lehiaketa izan dugu. Gaia, noski, hondakinak herrian. Bi irabazle izan dira, LHkoa bat eta DBHkoa bestea. Bakoitzean, irabazlearen gelakideek Aralarra txango bat egitera joan dira, Lizarrustiko bi hezitzaile gidari izan dutelarik.
9. Aurten egindako lana abiapuntutzat hartuta, maiatzaren 31an herriko plazan erakustaldi bat egingo dugu. Batetik, Azkoitian Eskolako Agenda 21ak 10 urte egiten duelako eta bestetik, herritarren artean gure lanen ondoren lortutako emaitzak zabaltzeko eta hauek informatzeko modu oso egokia izan daitekeelako. Lehiaketan aurkeztutako argazki guztiak ere erakusgai izango dira.